

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2018ko APIRILAREN 24an
EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uribe
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamazortziko apirilaren hogeita lauan, hamalauak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Iratxe Parro

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak osoko bilkurara ongiatorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko martxoaren 22an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Aurreko bilkurako aktari dagokionez, Nerea andreak (EH-Bildu) adierazi du seigarren puntuaren amaieran esaten dela gauzak aurrerapen gutxirekin iristen direla eta, beraz, azalpena jasotzeko denbora ez dutela; eta hori dela eta osoko bilkurara ez dakitela zer jarrera eraman. Gehitu du auzia ez dela zer jarrera eraman, baizik eta ez dakitela zein den osoko bilkurara eramateko jarrerarik egokiena.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta bertaratutako Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Berrestea 18/04/10eko 2018/125 zenbakiko Alkatetzaren Dekretua, 137/2018-A zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (prozedura arrunta) demandatu gisa agertzeko. Errekurtsoa Maderas Zerrabe SLk jarri du, 18/01/02ko 3/18 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuaren aurka; horren bidez, partzialki aintzat hartu zen azaroaren 24ko 548/17 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuaren aurka jarritako berrezartze-errekurtsoa.

Josu jaunak (EH-Bildu) errekurtsoa jartzeko planteatu dituzten argumentuei buruzgaldetu du.

Idazkariak azaldu du enpresak jarduerarako lizentzia bat eskatu duela. Horretarako proiektu bat aurkeztu dute, baina jarduera murriztazo batekin, potentzia txikiagoarekin; hala ere, txostena egin duen teknikariak ez du bidezkotzat jo, teknikoki ezinezkoa baita lizentzia hori ematea. Eta horregatik ukatu zaie.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, 2018 ekitaldirako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.-Udalak duen interesa, udal-esparru guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko.

IKUSI DA.- Hogeitalau Euskara Elkartearen izen emanda dagoela Aiarako Elkartearen Udala Erregistroan. Bere helburua da, besteak beste, euskararen ezagutza eta erabilera soziala sustatzea.

IKUSI DA.-Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena, 2018 ekitaldirako.

IKUSI DA.-Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2018ko apirilaren 16an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.-Hitzarmen honek Aiarako Udala Hogeitalau Euskara Elkarteari zuzenean emandako diru-laguntza bat araupetzen duela. Bestalde, udal-aurrekontuan partida izendun bat dago, kreditu nahikoarekin eta egokiarekin, hitzarmen hau sinatzeak Udalari dakarkion gastuari aurre egiteko.

Udalbatzak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Euskara Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena (2018 ekitaldia), Aiarako udalerrian Euskara sustatzeko ekimenak eta jarduerak sustatzeko.

Bigarrena.-Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.-Hitzarmena sinatu ondoren, Hogeitalau Euskara Elkarteari jakinaraztea, hitzarmenaren bi kopia erantsita, aleetako bat sinatu ondoren Udalari itzultzeko.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren arteko lankidetzaz-hitzarmena, 2018 ekitaldirako.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.-Udalaren interesa, udalerrian eta eskualdean euskararen erabileraren normalizazioa sustatzeko.

IKUSI DA.-Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen helburua euskararen normalizazioaren aldeko ekintzak ezartzea dela, lan horretan inplikaturako gainerako eragileekin elkarlanean.

IKUSI DA.-Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena (2018 ekitaldia), Aiaraldean euskararen erabilera normalizatzeko Kontseiluaren funtzionamendua eta jarduerak finantzatzea xede duena.

IKUSI DA.-Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2018ko apirilaren 16an emandako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.-Hitzarmen honek Aiarako Udalak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari zuzenean emandako diru-laguntza bat araupetzen duela. Bestalde, udal-aurrekontuan partida izendun bat dago, kreditu nahikoarekin eta egokiarekin, hitzarmen hau sinatzeak Udalari dakarkion gastuari aurre egiteko.

Udalbatzak, bertaratutako kide guztiak ados daudela, ERABAKI hau hartu du:

Lehenengoa.-Onestea Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena (2018 ekitaldia), euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea xede duena.

Bigarrena.-Alkateari-udalburuari hitzarmen hori sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.-Hitzarmena sinatu ondoren, adierazitako Elkarteari jakinaraztea, bi aleetako bat sinatu ondoren Udalari itzultzeko.

5.- 2017 ekitaldiko likidazioan agerian jarritako Gastu Arauaren betetze ezari buruzko Kontu-hartzaitzaren txostenaren berri ematea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

6.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak egindako txostenari buruz, Diruzaintzako gerakinaren erabileraren inguruan.

Idazkariak azaldu du txosten horretan 9.900,00 euroko gastu soila gehitu behar dela, Iberdrolak Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren inguruan egin behar dituen aireko lineak lurperatzeko obrarako. Beharrezkoa da obra egitea, eremu horretako urbanizazio-lanak amaitzeko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.-Beharrezkoa dela 2017. urteko likidaziotik atera den gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakina erabiltzea gastu-partidak sortzeko edo daudenak handitzeko, nahitaezkoak diren eta 2018. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko.

IKUSI DA.-2018ko apirilaren 19ko Idazkaritza eta Kontu-hartzaitzaren txostena, egonkortasuna betetzeari buruz, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin gastuak finantzatzeagatik.

AINTZAT HARTU DIRA.-Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzko Foru Arauaren (abenduren 13ko 38/2013 Foru Araua) 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Araua emandako idazketan.

Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak 2018ko apirilaren 19an egindako txostenari buruz, diruzaintzaren gerakinaren erabileraren inguruan.

7.- Onestea, bidezkoa bada, administrazio-espedita abiaraztea Aiara/Ayala eta Amurrio udal-mugarten mugaketari dagokion munarrien lerroa aitortzeko, Luiaondo kontzeju-mugarten.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DIRA.-Amurrio eta Aiara-Ayala udal-mugarten arteko mugaketa eta 1889ko eta 1927ko mugaketa eta mugarriztatze aktak, bai eta Katastroaren eta Geografiaren Institutuaren dokumentazio osagarria ere.

IKUSI DA.-2017ko abenduko txosten teknikoa, AIALUR SL ingeniari-entresak idatzitakoa, Amurrio eta Aiara-Ayala udalerrien arteko mugaren zatia aztertzei buruzkoa, Luiaondo herriarekin muga duen zatian.

HAU GERTATU DA.-Txosten teknikoan adierazten den bezala, honen ondorioz idatzi egin da: 1889ko mugaketa aktan eta 1927koan, munarrien muga hori bat dator (mugaketa zuzena da munarrien artean, Orozkorekin muga egiten duenetik Amestio erreka ondoan dagoenenera arte; ondoren, aurrera jarraitzen du Markixanara daramaten ibai-ardatzetatik). Bada, 1991ko erreseinek, munarri zuzenak deskribatzen dituzte, baina neurketa-akats garrantzitsu bat ere jasotzen dute. Eta ondorioz, udalerriko muga ofiziala errealitate nahiko desbideratuta dago.

HAU GERTATU DA.-Amurrio eta Luiaondoko erabilera publikoko mendien mugaketa denboran zehar lursailaren jabetzaren ondoriozkoa izan daiteke, udal-mugarekin bat datorren zatian. Izan ere, muga-lerro hori aldatu egin da; aurrekoa 1927ko eta 1889ko aktetan deskribatzen diren munarriek definitutako zatiekin bat dator.

HAU GERTATU DA.-Amurrioko Udalarekin elkarrizketan aritu gara eta erabaki dugu txosten tekniko hau egitea. Horren arabera, proposatzen da 1889ko eta 1927ko aktei erreparatuz linea zehaztea, behin Amestio erreka ardatzetik muga hori utzita eta Orozkora iritsi arte munarrien arteko lotura lerro zuzenean hartuta.

Lerro hori ez dator bat erabilera publikoko mendien mugarekin. Hortaz, Luiaondo udalerraren jabetzakoa den 26 EPMaren zati bat Amurrioko udal-mugarten barruan geratuko litzateke.

Hori guztia akta aztertzei eta bi udalerriek onartu beharreko lerroa proposatzeko xedearekin. Hala, bi udalerriei eta Foru Aldundiari jakinarazi behar zaie, udal-muga ofizialaren lerroaren egoera arautu ahal izateko, Katastroan eta dagokion lekuan.

AINTZAT HARTU DA.-Uztailaren 11ko 1690/86 EDko (Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia onartzen duena) 17. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa, egungo idazketaren arabera.

Udalbatzak, 2018ko apirilaren 24ko bilkuran, aho batez, **ERABAKI** hau hartu zuen:

Lehenengoa.-Administrazio-espedientea abiaraztea Aiara-Ayala eta Amurrio udal-mugarteen mugaketari dagokion munarrien lerroa aitortzeko, Luiaondorekin muga egiten duen zatian, Aialur ingeniari-tza-enpresak 2017ko abenduan eginiko txosten teknikoan proposatzen den lerroan.

Elkarrekin adostutako akta egiten bada, espediente honen xede jurisdikzionalaren lerro osoari dagokionez, betiere bi Udalbatzek alde aurretik onetsita, Arabako Foru Aldundi txit gorenari eta Geografiako Institutu Nazionalari bidaliko zaie, katastroa eta kartografia ofiziala adostutako akta horretara egokitu dezaten.

Bestela bada, hau da, punturen batean adostasun-erak mantenduta, puntuei buruzko akta batera formalizatzearen kalterik gabe, ados dauden beste akta bat egingo da paraleloki. Bertan, beharrezkoak diren datu, aurrekari eta xehetasunak jasoko dira, alde bakoitzaren iritzia justifikatzeko, desadostasuneko puntuei dagokienez; ondoren, espedienterekin aurrera jarraituko da, bidezkoak diren lege-izapideen bidez.

Bigarrena.-Izendatzea AIARA-AYALako Udal txit gorena ordezkatzeko duen Batzordea, lerro jurisdikzionala aitortzeko eragiketa egiaztatzeko. Batzorde hori alkateak (edo esku ematen dionak), zinegotzi hauek: Jose Antonio Bartolome Pesquera jauna (Iñigo Pinedo Vadillo jaunaren ordezkaria), Josu Artetxe Arana jauna eta Esteban Hernando Landa jauna (Lauren Uria Peña jaunaren ordezkaria) eta Iratxe Parro Uzquiano andrea (Iraida Saenz de Lafuente Blanco andrearen ordezkaria); bai eta udaleko idazkariak edo eskuordetzen dion funtzionarioak ere (azken horrek egintzaren fede eman beharko du).

Maite Alonso de la Vallina andrea (Luiaondoko Administrazio Batzarraren presidentea gisa) eta L. A. M. andrea (adinagatik eta zentzutasun kreditatuagatik, munarriak edo muga-seinaleak egon ziren lekua justifikatu dezakete) gonbidatzea munarriak aitortzeko ekitaldira etortzera. Bidezkoa denean, beraz, akta egingo den lekua, eguna eta ordua jakinaraziko zaie.

J. A. N. M. jauna, Mendi ingeniaria, peritu gisa izendatzea Batzordeari laguntzeko. Akta egin baino lehen espedientea aztertuko da.

Eta espedientera gehitzea J. A. N. M. jaunak 2017ko abenduan eginiko txosten teknikoa.

Hirugarrena.-Amurrioko Udalarri honen berri ematea; eta, halaber, eskatzea, dagokion Udal Batzordea izendatzeko eta Aiara-Ayalako Batzordeko ordezkariekin harremanetan jartzeko, ekitaldirako egun bat zehazte aldera. Era berean, Luiaondoko Administrazio Batzordeari jakinaraziko zaio.

8.- EAJ-PNV taldearen mozioa Kataluniako atxiloten eta kartzelatzen inguruan.

Josu jaunak (EH-Bildu) adierazi du bere taldeak EAJ-PNVk aurkeztutako mozioari bigarren puntu bat gehitzea proposatu nahi duela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du gehitu nahi duten puntu hori ez dietela helarazi, aurreko Informazio Batzordean adostu zuten moduan; eta, horrenbestez, ez dute aukerarik edo denborarik izan taldean puntu hori eztabaidatzeko. Beraz, mozioa aurkeztu den bezala bozkatuko da.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK:	5	EAJ-PNV
AURKAKO BOTOAK:	2	AIARA BATUZ
ABSTENTZIOAK:	4	EH-BILDU

Horrenbestez, mozio hau onetsi dute:

MOZIOA

" 1. Aiarako Udalak kezka adierazten du eta gaitzespena Carles Puigdemont atxilotzeagatik eta Jordi Turull, Carme Forcadell, Raul Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassa kartzelatzeagatik, joan den martxoaren 23an Auzitegi Nagusiak hala aginduta. Salbuespenezko neurri hauei, gainera, gehitu behar zaie Oriol Junqueras, Joaquim Forn, Jordi Sánchez eta Jordi Cuixart jasaten ari diren behin-behineko espetxealdia; hori ere gaitzesten dugu, oinarrizko printzipio demokratikoak urratzen dituelako.

2. Aiarako Udalak salatzen du herritarrek aukeratutako kargudunak kartzelatzea; beren eskubide politikoak erabiltzeko aukera kentzen ari zaie, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak Jordi Sánchezen kasuan erakutsi duen moduan. Era berean, kezka handiarekin bere egiten du Amnesty International taldeak jarduketa judizial hauen gainean egindako balorazio kritikoa; haien ustez, inputatutako karguak gehiegizkoak dira, baldintzarik gabeko behin-behineko espetxealdia neurritz kanpokoak, eta haien auzipetzea ohiz kanpokoak.

3. Aiarako Udalak babesa eta elkartasuna adierazten die atxilotutakoei eta kartzelatutakoei, haien familiei, partaide diren organizazio politiko eta sozialei, baita Kataluniako gizarte osoari ere; berehala aske uzteko eskatzen dugu.

4. Aiarako Udalak ezinegona adierazten du Kataluniako blokeo egoeragatik eta desadostasun politiko sakonagatik. Konstituzioaren 155. artikulua bidegabe aplikatuta, herritar katalanei beren burua gobernatzeko eskubide zilegia kendu zaie, eta egoera horretan, presidente bat inbestitzeko zailtasunak ez dira erraz ulertzen. Bereziki herritarrek beren eguneroko arazoez arduratzeko ahalmen guztiak dituen Govern bat behar dutenean.

5. Aiarako Udalak berriro deitzen du elkarrizketa zintzo, inklusibo eta berehalako bat izatera, Kataluniako agente politiko eta sozialekin, egoera hau desblokeatzeko, gatazka txikitzeko, 155 artikulua aplikazioa atzera botatzeko eta normaltasun demokratikoa lehengoratzeko, Kataluniako instituzioek funtziona dezaten, joan den abenduaren 21ean herritarrek hautestontzietan adierazitako borondatea oinarri hartuta".

9.-EH BILDUk aurkeztutako Erakunde Adierazpena, Katalunian hainbat pertsona kartzelatzeke aginduei buruz.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 4 EH-BILDU
AURKAKO BOTOAK: 7 (5 EAJ-PNV eta 2 AIARA BATUZ)

Horrenbestez, deuseztatu egin da mozio hau:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

“Aiarako Udalak bere kezka eta gaitzespena adierazten ditu Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassa kartzelatzeko aginduengatik, erabaki horrek oinarrizko printzipio demokratikoak urratzen dituelako.

Aiarako Udalak salatu egiten ditu Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassaren atxilotze eta kartzelatzeen arrazoi politikoak.

Aiarako Udalak babeseta eta elkartasuna adierazten die Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassari, baita Kataluniako gizarte osoari ere; bostak berehala aske uzteko eskatzen dugu.

Aiarako Udalak Espainiako Estatuari eskatzen dio oinarrizko askatasunaren aurkako estrategia errepresiboa eteteko, demokraziaren oinarrizko printzipioak urratzen dituelako.

Aiarako Udalak berretsi egiten du Kataluniaren, Euskal Herriaren, eta munduko herri guztien legitimotasun demokratikoa, euren etorkizun politikoari buruz erabaki ahal izateko; muga bakarria herritarrek demokratikoki adierazitako borondatea eta erabakia delarik.

Aiarako Udalak bere kezka eta erabateko gaitzespena adierazten ditu Carles Puigdemonten atxilotetari buruz, erabaki horrek oinarrizko printzipio demokratikoak urratzen dituelako. Hala, Udala honek atxilotua askatzeko eta euroagindua baztertzeko eskatzen du”.

10.- EH BILDUK aurkeztutako mozioa, datorren maiatzaren 6an Aiara-Ayala udalerrian egingo den galdeketari buruz.

Josu jaunak (EH-Bildu) adierazi du ideia hau premiaz planteatu zela; ohiz kanpoko osoko bilkura bat egiteko eskatu zen, galdeketa maiatzaren 6an egingo delako. Interes orokorreko gaia denez, adierazi du ez dutela ulertzen zergatik ez duten ohiz kanpoko osoko bilkura batean landu. Horrela, denbora gehiago izango zuten akordioari publizitate gehiago emateko; webgunearen bidez, irratian...

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez zela ohiz kanpoko bilkura bat egin mozioa justu Aste Santuko oporren aurretik iritsi zelako, eta orain ere, maiatzaren 6ra arte, denbora nahikoa dagoelako gaiari publizitatea emateko. Gainera, udal-aldizkariaren zati bat ere utzi da xede horretarako.

Josu jaunak (EH-Bildu) esan du bere taldearen iritziz ez dela oso positiboa gai honetan arintasunez ez jokatu izana; izan ere, “Gure esku dago”-ren kanpaina honen alde egin behar dugu.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udalak eta Gobernu-taldeak beti erantzun dutela kanpaina honen alde; “Gure esku dago”-ren lankidetzan jarduteko eskaerak aintzat hartu dituzte eta apirileko osoko bilkura hau zegoenez tartean, hau da, galdeketa baino lehen, iritzi dute denbora dagoela beharrezkoa den publizitatea emateko.

Era berean, adierazi du, "Gure esku dago" ekimenari udal-aldizkarian lekua utzi zaiola.

Nerea andreak (EH-Bildu) gehitu du premiaz planteatu zenean, arin egiteko eta herritarrei ekimenaren alde egiteko Udalaren erabakia jakinarazteko eta parte hartzera eta botoa ematera animatzeko denbora nahikoa izateko egin zela. Hori dela eta, orain garrantzitsuena da indar politikoek konpromisoa har dezatela herritarrak ekimenean parte hartzera animatzeko beharrezkoa den hedapena emateko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horrenbestez, mozio hau onetsi dute:

MOZIOA

“Aiarako zinegotziak gure udalerrian datorren maiatzaren 6an egingo den galdeketari buruz.

Aiarako Udalbatza osatzen dugun zinegotziek argi dugu erabakitzea eskubide bat izateaz gain, demokraziaren ariketa ukaezina ere badela.

Erabakitzea ahotsa eta hautestontzietan hori adierazteko ahalmena izatea da. Lege, printzipio edo ideologia batek ere ez du mugatu behar herritar guztiok eragiten digun gai baten aurrean dugun adierazpen eskubidea.

Hori dela eta, Aiara Udalbatza osatzen dugun kideok, EAJ-PNV, Euskal Herria Bildu eta Aiara Batuz taldeen ordezkari gisa, Aiara 24 herrietako biztanleei dei egiten diegu datorren maiatzaren 6an gure udalerrian egingo den galdeketa parte hartzera; ekimena herritarrek antolatu dute, Gure Esku Dago herri ekimenaren esparruan, nahi dugun etorkizunari buruz erabaki ahal izateko”.

11.- Alkatetzaren Dekretu hauen berri ematea:

- 2018/92.- Lanteno Haraneko Eskola Artistikoa.- 2017ko diru-laguntza zuzena murriztea.
- 2018/93.- J.L.B.G. Aparkatzeko txartela ematea.
- 2018/94.- BAO- Aurkeztutako alegazioa onartzea, euskara ikastaroarengatik diru-laguntzarako (2017ko deialdia).
- 2018/95.- V.F. Aspuru Terreros.- Armak edukitzeko A motako txartela ematea.
- 2018/96.- JA.A.U.- Armak edukitzeko B motako txartela ematea.
- 2018/97.- J.M.P.E.- Obra txikirako udal-lizentzia ematea, etxebizitzan sukaldea zaharberritzeko.
- 2018/98.- E.H.L.- Obra txikirako udal-lizentzia ematea, etxebizitzan hainbat jarduketa egiteko.
- 2018/99.- U.E.O.- Obra txikirako udal-lizentzia ematea, etxebizitzaren estalkiak teilak berriztatzeke.
- 2018/100.- I.U.L.- Obra txikirako udal-lizentzia ematea, finkarako sarbidea hobetzeko.
- 2018/101.- F/2016/11 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda onestea.
- 2018/102.- A.P.S.- Obrarako lizentzia ematea, etxebizitza eraikitzeke; eta dokumentazioa eskatzea, obrak hasteko baimena eman ahal izateke.
- 2018/103.- Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoa.- Dokumentazioa gehitzeko eskaera.
- 2018/104.- A.P.S.- Hondakinen kudeaketagatik fidantza eskatzea.
- 2018/105.- Z.G. Zehapenaren ordainketa zatitzeko baimena.
- 2018/106.- 1. azterketako onartuen behin betiko zerrenda onestea.- Administrari lanpostuaren barne-sustapena.
- 2018/107.- 2017 EKITALDIKO LIKIDAZIOA ONESTEA.
- 2018/108.- Idazkari eta kontu-hartzaile lanposturako lan-poltsa bat sortzeko lehiaketa-oposiziorako deialdia.
- 2018/109.- A.U.A. TMIZtik salbustea, desgaitasuna egiaztatzeagatik.

- 2018/110.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.- Obrarako lizentzia ematea, La Blanca bidea konpontzeko.
- 2018/111.- Arabako Foru Aldundia- Lizentzia-eskaeran atzera egindakotzat hartzea, zegokion epean eskatutako dokumentazioa ez gehitzeagatik.
- 2018/112.- Gasteizko Apezpikutzeta.- Dokumentazioa gehitzeko eskaera.
- 2018/113.- Erretes Lantenoko Administrazio Batzordea.- Dokumentazioa gehitzeko eskaera.
- 2018/114.- Erretes Lantenoko Administrazio Batzordea.- Hondakinen kudeaketagatik fidantza eskatzea.
- 2018/115.- Zuhatzako Administrazio Batzordea.- Dokumentazioa gehitzeko eskatzea, bereizketalizentziari dagokionez.
- 2018/116.- Zuhatzako Administrazio Batzordea.- Dokumentazioa gehitzeko eskatzea, obrarako lizentzia-espedienteari dagokionez.
- 2018/117.- Zuhatzako Administrazio Batzordea.- Dokumentazioa gehitzeko eskatzea, jardueraren alde aurreko jakinarazpenaren espedienteari dagokionez.
- 2018/118.- F.C.M.- Obrak amaitzeko luzapena ematea, Kexaan etxebizitza bat eraikitzeko.
- 2018/119.- G.B.M.-Informazio publikorako sarbidea ematea.
- 2018/120.- Ned Suministro GLP SAU.-Jabari publikoaren okupazio-tasaren likidazioa (2018ko 1. hiruhilekoa).
- 2018/121.- Nortegas Energía Distribución SAU.- Jabari publikoaren okupazio-tasaren likidazioa (2018ko 1. hiruhilekoa).
- 2018/122.- R.A.G.- Biztanleen udal erroldako baja bidegabeko inskripzioagatik (2018).
- 2018/123.- O.S.M.- Hondakinen kudeaketagatik jarritako fidantza itzultzea.
- 2018/124.-JL.B.G.TMIZtik salbustea, desgaitasunagatik.
- 2018/125.-Maderas Zerrabek jarritako137/2018-A AA Ean (administrazioarekiko auzi errekurtsoa) agertzeari buruz.
- 2018/127.- Kreditu gerakina gehitzea onestea.
- 2018/128.- 2018/4 zenbakiko fakturen zerrenda onestea.
- 2018/129.- R.V.M.- Obrarako lizentzia ematea, etxebizitzan komuna zaharbertitzeko.
- 2018/130.- O.G.C.- Onestea “fisioterapia eta osteopatia kontsulta” jarduera garatzea.
- 2018/131.- O.G.C.- Lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea.
- 2018/132.-A.E.C.- Eskatutako informazio publikorako sarbidea ematea.
- 2018/133.- M.L.O.D.B.B.- Aparkatzeko txartela ematea.
- 2018/134.- Idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuaren funtzionario titularraren zerbitzu-eginkizunerako baimena ematea.

Iraida andreak (AIARA BATUZ) 117 zenbakiko Dekretuari buruz galdetu du; zehazki, ea zer dokumentazio osagarri eskatu zaion jardueraren alde aurreko dokumentazioari lotuta.

Idazkariak erantzun du txosten teknikoa ikusi behar dela, Dekretuan hori aipatzen baita.

12.- Galde-eskeak.

- Iraida andreak (AIARA BATUZ) esan du ekainean, Bilbon, berdintasunari, aniztasunari eta inklusioari buruzko konferentzia bat egingo dela, mundu osoan oihartzuna duena; eta antza denez, udalei bertaratzeko deialdia iritsi zaie.Hori del eta, galdetu du deialdi hori jaso dugun, zinegotziek parte hartu baitezakete. Jakin nahi du zergatik ez duten deialdi hori jaso.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du begiratu egingo duela, baina ez du horren berririk.

Susana andreak (EAJ-PNV) esan du Berdintasuneko teknikariak ere ez duela horren berririk bere ustez; bestela, Berdintasun Foroan aurkeztuko zuen. Dena den, teknikariari galdetuko dio.

- Iratxe andreak (AIARA BATUZ) esan du maiatzaren 1a berehala iritsiko dela, eta oraindik ez dakigu zezenen igoerari buruz erabakirik hartu den. Arazo asko daude “trikomonekin” eta erabaki bat hartu behar da.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ezin izan duela Abeltzaintza Sailarekin hitz egin. Iratxe andreak (AIARA BATUZ) esan du, orduan, premia gutun bat bidali beharko litzaiekeela abeltzain guztiei, erabaki bat hartu arte zezenak igo ez daitezten.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Ermandadeko Batzar bat deituko duela horretarako.

Iratxe andreak (AIARA BATUZ) noiz egingo duen galdetu du. Esan du ez dagoela denborarik, abeltzainei ez zaiela gutun bat ere bidali, zer egin behar duten azaltzeko; ez zaiela jakinarazi aurten kontrolak egingo direla... Galdetu du, halaber, Angulorekin hitz egin ote duen, itxierari buruz.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) ezetz erantzun dio.

- Josu jaunak (EH-Bildu) esan du Murgako Administrazio Batzordeko errejidoreak Eusko Jaurlaritzari bidalitako idazkia irakurriko duela, Tramame eta Remairen egoeraren berri emateko.

Idazki hori **I Eranskin** gisa erantsi da.

Josu jaunak (EH-Bildu) esan du bi urte daramatzatela espediente horien egoerari buruzko berririk jaso gabe; zinegotziei ez zaiela informazio askorik eman enpresa horiei buruz. Esan du jakin badakitela IBBa ez duela Udalak izapidetzen, gaia Eusko Jaurlaritzaren esku dagoela; baina Udal honek ere nolabaiteko erantzukizuna dauka herritar guztiekiko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du irekitako espedienteak izapidetzen joan direla. Udal honek jakin duenean jarduera egiten ari zela, bertan agertu zen, hori eteteko asmoz. Baina Eusko Jaurlaritzarekin hitz egin genuenean, esan ziguten jarduera egin dezaketela. Halaber, esan du Murgako Administrazio Batzordearekin harremanetan egon direla gaiari dagokionez. Eta horren harira, Tramamek dirua zor badie langileei, Udalak ez du ahalmenik horri dagokionez jarduteko. Udalean Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailaren Ebazpenaren zain gaude; eta espero dugu bete dadila. Baina, egia esan, Udaletik ezer gutxi egin dezakegu.

Josu jaunak (EH-Bildu) ulertzen du espedientea ez dela erraza, zaila dela zerbait egitea, baina nonbaitetik hasi beharko da. Eta, batez ere, zinegotziei guztiaren berri eman behar zaie.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) gehitu du jarduera eten nahi izan zela, baina udal-mailan ezin da gehiago egin.

Josu jaunak (EH-Bildu) esan du zepa gero eta gehiago sartzen ari direla. Eusko Jaurlaritzaren aldeko jarduera arduragabe bat dago. Udalak jarrera beligeranteagoa izan behar luke enpresa horrekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko. Izan ere, enpresak bi urte baino gehiago daramatza IBBan ezarritako neurri zuzentzaileak bete gabe.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Eusko Jaurlaritzak Tramame eta Remairi zehapen-espedita igortzeko zain daudela, betetze eza hori dela eta. Gehitu du, Eusko Jaurlaritzak esan duela beste batzuetan ere gertatu izan zaiela, lurzoruak berreskuratu behar izan dituztela enpresaren ondarearen kargura.

Josu jaunak (EH-Bildu) galdetu du ea nor ari diren babesten gai honekin. Eusko Jaurlaritza ingurumenarekiko arrisku handia duen jarduera hau babesten ari da, eta gero, etorri eta garbituz dena konponduko dute. Tramame eta Remai dira Tramame, Tubos eta abarren zepa garbitzen dutenak; eta guztiok badakigu noren jabetzakoak diren horiek. Udala lanean hasi behar da auzi hau konpontzeko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du Udal honek duen bide bakarra zehapenak direla. Ertzaintzarekin agertu ziren bertan jarduera ixteko, baina ezin izan dute hori egin. Zehapen-espedita bat abiarazi daiteke, baina badakigu zertarako balioko duen horrek.

Iratxe andreak (AIARA BATUZ) esan du Eusko Jaurlaritzari eskatu ahal zaiola izapidetzearen egoerari buruz berri emateko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du hori egin dutela, haiekin hitz egin dutela, eta esan diete zehapen-espedita bat irekiko dutela.

- Josu jaunak (EH-Bildu) galdetu du webgunean ikusi duen Aiarako promozio-bideo bati buruz. Ez dakite nola esleitu den eta zein den aurrekontua.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du hori Dekretuetan jasotzen dela. 2017an egin zen esleipena. Administrazio Batzorde bakoitzari bere herriko argazkiak bidaliko zaizkio; eta materialarekin komunikabideetara bidaltzeko bideo bat egin da.

Nerea andreak (EH-Bildu) esan du horrelako kontuak dagozkion Batzordeetan jakinarazi behar direla; horrela, eduki eta helburuen berri izango zuten.

- Josu jaunak (EH-Bildu) Aiar Batuzi zuzendutako idatzi hau irakurri du:

“Batzordean iragarri zuenari lotuta, ABk mozio "politikoen" aurka bozkatzeko jarrera mantenduko du geratzen den legealdi osoan?

1. Mozioen izaera politikoari buruz. Udal-erabaki txikienek ere dimentsio politikoa dute.

Idea, bizi-planteamendu, desira, behar eta abarrekin bat etorritik jardun eta erabakitzen dugu; eta horiek izaera, pentsaera, egiteko era... bat irudikatzen dute. Eta bai, hori gure pentsaeran oinarritutako ideiei, politikei, neurriei lotuta dago. Udalbatza honek aho batez babestu zuen martxoaren 8ko greba feminista; erabaki oso politikoa eta eragin handikoa izan zen. Ezin ditugu horrelako erabakiak hartu?

Batzuetan badirudi ezin garela solidarizatu hemendik kanpo gertatzen denarekin, beste kausa batzuekin, badirudi hori guztiak ez duela zerikusirik Aiarako herritarrekin. Bada, hori ez da horrela, ez gara irla batean bizi. Beste askoren injustiziak bizitzen ditugu, horiekin solidarizatzen gara, eta erabakiak hartzen ditugu kontu horiek errepikatu ez daitezela.

Altsasun gertatu dena politikoa da, noski, baina bidegabea eta neurrigabea ere bada, Katalunian gertatzen dena bezalaxe...Mozio bat onesten dugunean haiekin solidarizatzeko, aldi berean pentsatzen dugu ez dugula hori nahi gure herritarrentzat.

Ezin gara geldi geratu beste leku batzuetan gertatzen denaren aurrean, gure udalerrian hori gertatu ez delako bakarrik. Zinegotziak garen aldetik, uste dugu gure ardura eguneroko eta etxeko kontuekinduela zerikusia, baina baita herrialde bateko gizarte gisa eragiten diguten gaiekin ere.

2. Mozio "politikoak" babestuko ez direla Udalbatzaren jardueran eragina izango duen erabakia da.
3. ABk uste badu, azaldu zuen moduan, horren bidez beste bi taldeak behartzen dituela adostasuna bilatzera, adierazi behar dugu hori egia ez dela, ez dezagun inor engainatu. Izan ere, erabaki hori EAJri gutun zuria ematea da, bere bost botoekin nahi duena aurrera atera ahal izateko. Eta beraz, adostasunak lortzeko EH Bildu gutxiengo argiko leku batean uzten du.
4. Halaber, arraroa da kontrako jarrera mantentzea proposamenak ezagutu gabe; izan ere, herrialdearentzako eta, beraz, Aiarako herritarrentzako onuragarriak izan daitezke.

Hortaz, gure eskaria da, postulatuenganako errespetu osoaz, ABk erabaki hori birpentsatu dezala".

Iraida andreak (AIARA BATUZ) esan du bere taldearen abstentzioarekin lortzen zela gobernu-taldeak bere proposamenak aurrera eramatea, Bildurekin inolako adostasunik lortu beharrik gabe, zinegotzien gehiengoa dutelako. Aiara Batuz taldearen aurkako botoarekin, ordea, gobernu-taldea behartzen da Bildurekin gauzak adostera, proposamenak aurrera atera ahal izateko. Gehitu du ulertzen dutela mozio edo adierazpen horietan adostasuna lortzea dela normalena, gaiak garrantzitsuegiak direlako bi taldeak ados ez jartzeko. Halaber, esan du aintzat hartuko dutela idatzian jasotakoa, eta taldearekin aztertuko dutela.

Iratxe andreak (AIARA BATUZ) gehitu du bere taldean erabaki zutela horrelako mozioetan abstenitzea, baina legealdi honetan, EAJk zinegotzi bat gehiago dauka, eta beraz, Bilduk aurka bozkatzeko badu ere, Aiara Batuzen abstentzioarekin, proposamenak aurrera atera ahal dituzte.

Nerea andreak (EH-Bildu) esan du ez duela jarrera hori ulertzen, eta EAJrentzako gutun zuria dela, euren proposamenak aurrera ateratzeko.

Iratxe andreak (AIARA BATUZ) erantzun dio hori ez dela horrela. Aiara Batuz taldearen botoa aurkakoa bada, EAJk EH-Bildurekin adostasuna lortzen ez badu, eta azken horrek ere aurka bozkatuta, mozio edo proposamen horiek ez dira onartuko.

Josu jaunak (EH-Bildu) esan du ez dutela kritikatzeko orain kontra bozkatzeko hartu duten erabakia, baizik eta posiziorik ez hartzea. Izan ere, Udaletan asko eta asko dira hartu beharreko erabaki politikoak, eta ez dute ulertzen aldez aurrerik abstenitzeko edo kontra bozkatzeko jarrera hori hartzea. Udalean erabakitzen den guztia da politika, eta jarrera horrek adostasuna eta eztabaida zailtzen du.

Nerea andreak (EH-Bildu) esan du jarrera hori bidezkoa dela, baina ez dute ulertzen udal-talde batek beste aldera begiratzeko jarrera hartzea gai politikoei dagokienez.

Iraida eta Iratxe andreak (AIARA BATUZ) esan dute, amaitzeko, eskaria taldeari jakinaraziko diotela eta horri buruz eztabaidatuko dutela.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura hamabostak eta hogeita hamasei minutu direnean, eta aztertutako gaiak eta ebaztitakoak egiaztatzeko, nik, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamazortzikoapirilaren hogeita lauan.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.Gentza Alamillo Udaeta

Sin.Naiara Lazpita Marcos

ANEXO I

JUNTA ADMINISTRATIVA DE MURGA
C/ LA IGLESIA S/N
01479 MURGA
TEL.945 049 001



**A LA ATENCIÓN DEL DEPARTAMENTO DE AUTORIZACIÓN AMBIENTAL INTEGRAL DEL
GOBIERNO VASCO. SR. HIPOLITO BILBAO Y/O SRA. IZASKUN SANTIAGO.**
Donostia-San Sebastian 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

DÑA. JOANA URRUELA BERGANZA, actuando en nombre y representación en mi condición de **REGIDORA-PRESIDENTA DE LA JUNTA ADMINISTRATIVA DE MURGA**, con domicilio a efectos de notificaciones en Casa Concejo de Murga, barrio la Iglesia S/N , CP 01479 de Murga, **EXPONGO**.

Que durante años esta Junta Administrativa de Murga lleva denunciando las actividades realizadas por las empresas TRAMAME Y REMAI en Murga, que son innumerables las quejas de vecinos debido a grietas en viviendas, ruidos y vibraciones en viviendas colindantes, material pulverulento que sale de las grandes montañas de escorias almacenadas en la intemperie, continuos vertidos al río Izoria, cortes con lanza térmica sin ningún tipo de filtro, estado de la carretera general debido a la entrada y salida de camiones con escorias etc...

Que con fecha 11 de abril de 2016 se concede Autorización Ambiental a TRAMAME Y REMAI S.A y que en esa autorización era de obligado cumplimiento una serie de requerimientos que somos conocedores que no han incorporado, entre los que se encuentran los siguientes.

CUMPLIMIENTOS A LLEVAR A CABO EN 2016.

Sistema de videograbador en zona termica
Señalización de limitación de velocidad en las Instalaciones
Mediciones periódicas de PM10
Analíticas de aguas de vertido.
Medición anual de vertido de saneamiento.
Medición anual de ruido
Canon de vertido de aguas industriales
Seguro de responsabilidad civil por cuantía mínima de 600.000 euros.

Nada de lo anteriormente citado esta hecho.

EN EL PLAZO DE DOS MESES DESDE ABRIL DE 2016

Los residuos pulverulentos tenían que estar almacenados en edificaciones cubiertas completamente por techo y laterales.

La montaña de escoria tenía que estar eliminada todo lo que esta a 30 Metros del río y por exigencia de URA todo lo que esta dentro del área de inundabilidad y el resto debe estar bajo cubierta.

SIN EMBARGO NADA DE ESTO SE HA CUMPLIDO, y en las instalaciones existen más de 90.000 Toneladas de escorias totalmente a la intemperie.

EN EL PLAZO DE 3 MESES A CONTAR DESDE ABRIL DE 2016

Tenían que haber presentado actualizado el informe preliminar de situación del suelo
Se tenía que haber instalado 2 piezometros para el control de aguas subterráneas.
Y justificación de la eliminación de acopio de escorias.
Una vez más nada de lo anteriormente citado esta hecho.

EN EL PLAZO DE 6 MESES A CONTAR DESDE ABRIL DE 2016.

Informe de ECA inicial para los focos implantados.



Proyecto para la impermeabilización de trituración, cribado y almacenamiento de residuos y otros materiales pulverulentos.

Nada está hecho.

EN EL PLAZO DE DOCE MESES A CONTAR DESDE ABRIL DE 2016

Tenían que haber completado las barreras arbóreas como corta vientos

Balsa de decantación y tratamiento y arqueta de muestreo

Cuneta perimetral de recogida de aguas industriales

Adecuación del sistema de lava ruedas en circuito cerrado

Documentación acreditada de la eliminación de los actuales acopios a la intemperie de material a gestionar, así como los de material ya gestionado y documentación acreditada de la ejecución del programa de reducción de la contaminación mediante la implantación del sistema de depuración previsto, Y OTRA VEZ MÁS NADA SE HA HECHO.

EN EL PLAZO DE 18 MESES DESDE ABRIL DE 2016

Tener realizadas las mediciones de los focos APCA de chimeneas y campanas.

Por tanto viendo lo anteriormente citado, los incumplimientos son **TOTALES**, por tanto debido a todos estos incumplimientos solicitamos a este Departamento de Autorización Ambiental Integral que anule de forma inmediata la autorización ambiental a Trámame y Remai.

Que además esta empresa desde Septiembre de 2017 no tiene trabajadores a su cargo, que todos los trabajadores han denunciado por estafa al gerente de las instalaciones y que tienen deudas millonarias y ordenes de embargo.

Y sin embargo en estas instalaciones siguen entrando camiones de escorias que son vertidas en un gran montaña cerca del río, sabiendo que esta empresa mantiene deudas millonarias con una empresa siderúrgica de la zona y que su idea es deshacerse de ese material, provocando que las instalaciones de Murga se conviertan en un **GRAN VERTEDERO INCONTROLADO**.

Es por ello que esta **JUNTA ADMINISTRATIVA DE MURGA**, solicita al Departamento de Autorización Ambiental Integral del Gobierno Vasco la paralización inmediata de las actividades que se están dando en estas instalaciones, y que se prohíba la entrada de más material y que no se conceda autorización a ninguna otra empresa pantalla para que sigan realizando actividad alguna en las mismas condiciones que lo ha estado haciendo Trámame y Remai a pesar de todos los incumplimientos existentes y del gran daño que durante años esta ocasionando al Medio Ambiente y a los habitantes del pueblo de Murga.

Por último solicito que se nos informe por escrito de todas las medidas que se lleven a cabo por este Departamento de Autorización Ambiental Integral sobre este hecho denunciado.

En Murga, a 21 de Marzo de 2018

FDO. JOANA LEBRUJIA BERGANZA



REGIDORA/PRESIDENTA DE LA JUNTA ADMINISTRATIVA DE MURGA